



#ireki
abrir
ouvrir

Euskal Herrian,
2016ko urriaren 15ean.

Langileok preso eta iheslariak etxeratze bidean jartzea bultzatuko dugu

Dagoeneko 5 urte pasa dira ETA erakundeak behin betiko su etena eman zuenetik. Munduko toki guztietan gatazka armatuaren amaieran preso eta iheslarien aferari irtenbidea ematen zaio. Zoritxarrez Euskal Herrian horrelakorik ez da gertatu, frantziar eta espainiar Estatuak urratsik eman ez dutelako, eta euskal herritarrok jakin izan ez dugulako afera hau konpontze egoeran jartzen.

Hemen gaudenok Euskal Herriko txoko guztietako langileak gara, eta elkartu gara honekin oso kezkatuta gaudelako.

Esan dezakegu azken 5 urteotan, salbuespenak salbuespen, langile mugimenduan preso eta iheslarien kontuak nahiko ahazturik izan ditugula. Esan dezakegu azken urte hauetan lan mundutik ez garela gai izan preso eta iheslarien dinamikan ekarpenik egiteko.

Gogoeta hauekin pasa den urtarrilaren 9an, Bilbon eta Baionan izandako manifestazioen ostean hasi ginen, eta geroztik ideia horrekin bueltaka jardun izan gara. Urrun dira, oso urrun, egoera askoz zailagoak zirenean euskal langileriak eta euren ordezkariak esparru honetan eginiko ekarpenak: Ibaetako foroa, elkarretaratzeak, manifestuak, lan uzteak, ... Paradoxikoki, euskal jendartean baldintza objektiboak askoz hobeak direnean preso eta iheslarien gaia langile mugimenduaren agendan ez dago.

Gogoeta xume hauek batu gaituzte eta proposamenak egitera eraman gaituzte, pentsatzen baitugu preso eta iheslarien etxeratze bidea IREKItzea, langileen artean hauekiko beste giroa IREKItzea, esperantzari ateak IREKItzea, azken finean beste garaia IREKItzea langileon esku ere badagoela.

Historian zehar langileon bizi eta lan baldintzetan izaniko lorpenak langile mugimenduan eginiko indar biltzearen ondorioz lorturikoak izan dira. Afera honetan ere, asko dugu emateko eta horregatik hemen azaltzen gara. Arrazoi asko egon daitezke euskal preso eta iheslariari atxikimendua azaltzeko (elkartasuna, giza eskubideak, proiektu politikoa, elkarbizitza, ...), baina Guk funtsezkoak eta sinpleak diren bi arrazoi besterik ez ditugu aipatuko:

Arrazoi LOGIKOA: GARAIA delako. Gatazka armatuaren amaierarekin batera, mundu guztian, preso eta iheslariak etxerako bidean jarri izan dira, eredu desberdinei jarraikiz (guztiak batera, taldeka, epeka, ... legeak aldatuz edo ez, ...) baina etxerako bidean.

LANGILE arrazoia: hauteskunde ziklo, kalkulu eta agenda politikoen gainetik, behin baino gehiagotan izan da erabakigarria langileon bultzada aldaketa sakonak eragiteko. Potentzialtasun horren jakitun abiatzen da ekimena.

Martxan ipiniko dugun ekimenaren bitartez esparru honetan langileen atxikimendua eta indarrak biltzera goaz. Badakigu langileok erronka handiak ditugula bizi eta lan baldintzetan galdu ditugun eskubideetan aurrera egin ahal izateko, eta horretan jarraitu beharra daukagula. Baina jakin badakigu ere, preso eta iheslarien alorrean egin dezakegula eta egingo dugula.

Oso originalak ez gara izango, baina planteatzen duguna da euskal preso eta iheslarietako atxikimendua nagusiki, sinaduraren bitartez egitea. Inoiz Euskal Herrian egin den sinadurarik erraldoiena egingo dugu. Helburua 150.000 sinadura lortzea euskal langileen artean. Lan hau lantokiz lantoki egin ahal izateko Euskal Herri osoan bolondresak beharko ditugunez, agerraldia aprobeztatu nahi dugu deialdia egiteko eta gurekin harremanetan jartzeko: ireki@ireki.eus

Behin 150.000 sinaduren helburua lortuta, sinadura horiek guztiak preso eta iheslarien arloan lanean diharduten eragileen esku utziko ditugu beraiek kudea ditzaten; baita euskal sindikatuen esku ere.

Beraz, datozen astetan Euskal Herrian zehar lanean hasiko gara. Esan dugun bezala tresna nagusia sinadura bilketa izango da, baina horrez gain, eskualdeka, herrika, lantokika, honetan ariko direnek erabakiko dute sinadura bilketa hau osagarritu nahi duten, eta horrela ebatziz gero, nola.

Ekimen honen hitz gakoa, **IREKI** izango da:

- ... ireki espetxe eta ziegetako atak ...
- ... ireki iheslarien sorterriratze bideak ...
- ... ireki salbuespenezko legediaren trabak ...
- ... ireki aukera berriak gatazkaren konponbideari ...

Eta ekimenaren irudia, **giltzarrapoa** (kandadua, candado, cadenas). Lantegiz lantegi, eskualdez, eskualde, sektorez sektore antolatuko diren ekimenetan “ireki” hitzarekin eta giltzarrapoaren irudiarekin jokatzuz, imajinazioak sortzen ahal dituen adina esaldi eta horma-irudi gauzatu ahalko dira.

IREKI ekimena beraz, dagoeneko martxan dugu. Otsaila aldera beste agerraldi baten bidez sinadura bilketak ordurako emandakoa azalduko dugu.

Ekimenaren amaiera berriz, ekainaren 17an kokatzen dugu.

Gaurtik eskatzen dugu data hori agendan gordetzea, egun hori mugarrria bilakatu nahi dugulako. Egun horretan lorturiko sinadura kopuruaren berri eman, ekimenaren balantzea egin, eta preso eta iheslari guztien etxeratze bidea modu sinbolikoan izango bada ere, IREKIko dugu.



#ireki
abrir
ouvrir

ireki@ireki.eus
www.ireki.eus